

Goi Eskola Politeknikoak eta Platoniq-ek "Ideiazoka" antolatu zuten atzo Azkoitian

2009/06/12

Goi Eskola Politeknikoak eta Platoniq-ek "Ideiazoka" antolatu dute biharko Azkoitian. Azoka horrek ideia ekintzaileak bultzatzea gura du unibertsitatearen, enpresen eta herritarren laguntzarekin.

- Ideiazokak etorkizunean Urola Erdian garatu ahal izango diren ideiak eta partaideak bilatu nahi ditu.
- 9:00etatik 14:00etara izango da Azkoitiko Jorge Oteiza pilotalekuan.
- Azokan inguruko hogeit hamar enpresa izango dira eta ideia berriak dituen edonor ere gonbidatuta dago.
- Topaketa egiteko 2 espazio erabiliko dira: pilotalekuak eskaintzen duen gune fisikoa eta ikus-entzunezko iragarki-etaulak eta SMS mezuak bateratzen dituen SOS sareko gunea.
- "Disonancias" berrikuntza-programaren partaideen arteko kolaborazio-lana da Ideiazoka. Partaide horiek Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren Berrikuntza eta Ekintzaitza Departamentua eta software garatzailea eta kultura-ekoizlea den Platoniq organizazio kataluniarra dira.



Ideia berriak eta ekintzaileak bultzatzen dituen proiektu berriztatzailea sortu dute Goi Eskola Politeknikoak eta Platoniq-ek. Esperientzia pilotua bihar izango da Azkoitian. Ideiazoka proiektuak inguruko hogeit hamar enpresen laguntza izango du eta 09:00etatik 14:00etara izango da Azkoitiko Jorge Oteiza pilotalekuan.

Ideiazokaren helburua enpresen, ikasleen, ikerlarien eta herritarren topagune bilakatzea da. Horrela, lankidetzak bultzatu eta aukera berriak sortu nahi dira, bertako baliabide ekonomiko eta sozialei etekina ateratzeko.

Jendearentzat zabalik izango den gune horrek 5 atal izango ditu:

- Oraindik erabilerarik ez duten ikerketak.
- Produktu edo enpresa berri bilakatu daitezkeen ideiak.
- Beste enpresa batzuentzat baliagarriak izan daitezkeen azpiprojektuak eta etenik ateratzen ez zaien makinak.
- Konponbidea behar duten erakundeen arazoak eta erronkak.
- Esperientzia eredugarriak edo jardunbide egokiak.

Ideien merkatuan eskualdeko konponbideak, arazoak, organizazioak eta pertsonak harremanetan jarriko dira. Sektore arteko Enpresa eta produktu berriak sortzen laguntzeaz gain, herritarren oharrak eta eskaerak kontutan hartuko dira. Urola Erdian izango den ideia ekintzaileen laborategian garatu ahal izango diren ideiak eta partaideak bilatzeko tresna da, hain zuzen.

Sarean eta toki fisikoan

Topaketarako 2 gune izango dira: frontoien toki fisikoa eta ikus-entzunezko iragarki-etaulak eta SMS mezuak erabiltzen dituen SOS bidezko sareko gunea. SOS iragarkiak grabatzeko kita da. Baliabideak eta informazioa besteekin banatu nahi duen eta eremu baten barruan dauden interes berdineko pertsonak kontaktuan jartzen ditu. Interesatuak SOS bidez iragarkiak grabatzen dituzte eta, gero, kontsultatu ahal izateko, Interneten jartzen dira gai eta hitz-gakoen arabera sailkatuta. Ondoren, sistemak, mezuen eta iragarkien erantzun zehatzen artean antzekotasunak aurkitzen dituzte, automatikoki, SMS bidezko mezua bidaltzen die interesatuei, kontaktuan jar daitezela.

Ideiazoka 2008. urtetik "Disonancias" berrikuntza programan elkarlanean ari diren 2 partaideen elkarlanetik sortu da: Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola .

Politeknikoaren Berrikuntza eta Ekintzaitza Departamentua eta software garatzailea eta kultura-ekoizlea den Platoniq organizazio kataluniarra. Berrikuntza sustatzeko artistekin lankidetzan aritu nahi

duen enpresei, ikerketa zentroi eta erakunde publikoei zuzendutako plataforma da. Era horretara, berrikuntza irekia eta parte-hartzailea indartuko da kanpoko eta barruko ezagutza iturriak orekatuz eta partaide guztientzat onuragarri izanez.

“Eskuberri” proiektuaren zati ere bada Ideiazoka. Proiektu horren helburua Urola Erdirako sektore arteko cluster bat diseinatzea da. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Iraurgi Lantzenen, hau da, Urola Erdia Sustatu eta Bultzatzeko Baltzuaren, finantziazioa izan du.